



**EMAKUNDE**

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

**Eusko Jauriaritzako erakunde autonomiaduna**  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**2018ko ZIFRAK,  
Euskadiko emakumeen  
eta gizonen egoerari  
buruzkoak.**

***Laburpena***

## AURKIBIDEA

<b>1. DEMOGRAFIA-AZTERKETA.....</b>	<b>3</b>
<b>2. BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA .....</b>	<b>5</b>
<b>3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA .....</b>	<b>10</b>
<b>4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA .....</b>	<b>14</b>
<b>5. GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA .....</b>	<b>17</b>
<b>6. INDARKERIA .....</b>	<b>20</b>

## 1. DEMOGRAFIA-AZTERKETA

2017 urtean, EAEn 1.119.441 emakume bizi dira, biztanleen % 51,4; alegia, gizon gutxiago dago, 1.056.378. Biztanleen banaketa lurralde historikoka eginez gero, aurreko urteetako datu bertsuak lortu dira; biztanleen % 52,4 Bizkaian bizi da, % 32,7 Gipuzkoan eta % 14,8 Araban.

Adin-tartean arabera, segmentu gazteenetan gizonen presentzia nabarmenxeagoa da, baina 50 urtekoen tartetik aurrerakoetan emakumeen presentzia handiagoa da, gero eta handiagoa adinean aurrera egin ahala; 85 urte edo gehiago dituzten 3tik 2 emakumeak dira.

Eustaten datuen arabera, 103.541 emakume atzerritar daude EAEn erroldatuta; EAEko emakumeen % 9,2. Atzerriko emakumeen jatorriari erreparatuta, Erdialdeko Amerika, Karibea eta Hego Amerika da jatorri-eskualde nagusia.


2017an, 7.594 ezkontza erregistratu dira; horietatik 196, sexu bereko pertsonen artekoak. Horietan, hamarretik zortzi bide zibiletik egin dira. Deuseztapen-, dibortzio- eta banatze-epaiak apenas aldatu diren azken urtean (4.005); horietatik, dibortzioak dira ia guztiak (% 96,5). Emakumeak gizonak baino gazteago ezkontzen dira; alegia, 35 urte edo gutxiago dituzten pertsona ezkonduetan, gehienak emakumeak dira, aurrerako adin-tarteetan, gizonen proportzioa da handiena.

17.055 jaiotza egon dira, eta joera beherakorrak bere horretan jarraitu du; 2016an baino % 6,5 jaiotza gutxiago egon da. Halaber, 2017an ama izandako emakumeen % 70 30-39 adin-tartekoak ziren.

2017an, 10.807 emakume eta 10.822 gizon hil dira EAEn. Ia adin-tarte guztietan gertatzen da hildako gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa izatea, eta adinean aurrera egin ahala, are alde handiagoarekin.


## DEMOGRAFIA-AZTERKETA

**BIZTANLERIA GUZTIRA, EAE 2017:**  
**2.175.819**




Bizi-itxaropena	
EMAKUMEAK	86,3 URTE
GIZONAK	80,6 URTE
Emakumeak	Guztizkoaren gaineko %
> 70	% 59,6
> 80	% 64,8

**EAE-KO BIZTANLEEN JATORRIA 2017**



**EAE-N BIZI DIREN EMAKUMEAK 2017**



### JAIOTZA-TASA, EAE, 2017

**2017 Jaiotzak, guztira 17.055 (% 6,5 gutxiago, 2016. urtearen aldean)**

Amen % 34,7: 35-39 adin-tartekoak (jaitsiera txiki bat)

Ama izateko adina, batez beste: 32,9 urte (igoera txiki bat)

Amen % 43,9 ez zegoen ezkontuta (joera gorakorrek jarraitzen du)

Jaiotzen % 22,3 ama atzerritarrei dagokie (joera gorakorrek jarraitzen du)

### HERIOTZA-TASA, EAE, 2017

**2017 Heriotzak, guztira 21.629 (% 50,0 emakumeak; gehiago, 2016. urtean baino)**

Heriotza-tasa gordina (heriotzak, 1.000 biztanleko): 10,0 guztira eta 9,7 emakumeak (+0,4)

## 2. BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA

Azken hamarkadetan bilakaera positiboa izan du emakumeen jarduketa-tasak, baina 2017an, tasak behera egin du zertxobait. Lan-adinean dauden emakumeen partaidetza % 51,9koa izan da; gizonena, % 61,1koa. Edonola ere, bi-biak iazko datuak baino okerragoak dira, bereziki gizonen datua (hurrenez hurren, -1,2 eta -0,1).

Gazteena da (16-24 urte) jarduketa-tasarik baxuena, baina ez dago desoreka nabarmenik emakumeen eta gizonen artean. Adinean gora egin ahala, ordea, desoreka gero eta agerikoagoa da, eta bereziki 45 urtetik aurrerako tartetean; emakumeen presentzia lan-merkatuan nabarmen murrizten da (% 39,1 dira, gizonak, berriz, % 50,3).

Hala emakumeetan nola gizonetan, lan-merkatuko parte-hartzea handiagoa da 2 seme-alaba edo gehiagorekin. 2 seme-alaba edo gehiago dituzten emakumeen kasuan % 78,1 da, eta % 88,4 gizonen kasuan.

EAEko emakumeen enplegu-tasa % 45,7koa da, 8,9 puntu txikiagoa gizonena baino (% 54,6). Emakumeen eta gizonen arteko aldeak desberdinak dira adin-tarte bat edo bestea hartu; nolana ere, ez dago alde handirik adin-tarte gazteenean. Aldeak nabarmenagoak dira 25-34 adin-tartean, eta 45 urtetik aurrera.

Hizpide dugun urtean, 434.571 emakume zeuden afiliatuta Gizarte Segurantzari; alegia, gutzitzkoaren % 46,8, eta erregistratutako gizonak baino 59.536 gutxiago.

2017an, langabezia-tasak behera egin du emakumeen artean; % 13,6tik % 12ra. Alabaina, gizonetan baino gutxiago jaitsi da (% 13,3tik % 10,8ra). 2015az geroztik (langabezia-tasa osoa % 15,4koa zen EAEn), langabezia jaitsi egin da etengabe EAEn, baina oraindik ere urrun dago orain 10 urteko minimotik (% 3,3).


Bestalde, lan-merkatuko segregazio horizontalean genero-alborapen nabarmenak ageri dira oraindik orain. Emakume landun gehienek (% 59,1) zerbitzu-sektorean egiten dute lan, eta sektore guztietan emakumeak langileen erdia baino gutxiago dira, eta nabarmen gutxiago, adibidez, eraikuntzan (landun guztien % 14,2 dira emakumeak).

2017an, EAEn erregistratutako kontratu gehienak aldi baterako izan ziren. Kontratu mota hori duten langileetan, emakumeak erdia pasatxo dira (% 50,1); alabaina, kontratu mugagabeetan, emakumeen proportzioa txikiagoa da (% 47,9). Aldeak hautematen dira emakumeen eta gizonen artean, halaber, lanaldi motan. Lanaldi partziala duten 4tik 3 emakumeak dira; lanaldi osoari dagokionez, ordea, % 40,9 dira emakumeak.


Emakumeen eta gizonen ekintzailtza-indizean 2,1 puntuko aldea dago, eta emakumeena da bietan txikiena (4,7 emakumeak eta 6,8 gizonak). Ekintzailtzaren faseak aztertuta, emakumeen presentzia % 40,9koa da hasierakoan, eta % 45,5koa ekintzailtza sendotuaren fasean.

## LAN PRODUKTIBOA


### Jarduera-tasaren bilakaera




### Jarduera-tasa, adinaren arabera, 2017




### Jarduera-tasa, seme-alaben arabera 2017




### Okupazio-tasaren bilakaera




### Okupazio-tasa, adinaren arabera




### Langabezia-tasaren bilakaera




### 2017ko laburpena




**Gizarte Segurantzan afiliatutako emakumeak, lan-altan daudenak (%)**




**Enplegu-eskatzaileak guztira eta langabezian dauden enplegu-eskatzaileak 2017**




**Emakume landunen bilakaera, %, sektoreka**



**Erregistratutako kontratuak, kontratu motaren eta lanaldi motaren arabera**




Emakumeen kontratuak, guztira:  
478.409




Gizonen kontratuak, guztira:  
479.691



### Lanaldi mota 2017



### Ekintzaitza 2017



### 3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA

2016/2017 ikasturtean, oreka dago neska-mutilen artean, derrigorrezko hezkuntza; dauden alde txikiak EAEn erroldatutako neska gutxiago egoteari zor zaizkio. DBHtik aurrera, aldeak nabarmenagoak dira; oinarritzko, erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketan emakumeen presentzia txikiagoa da. Batxilergoan eta helduen hezkuntzan (HHE), emakumeen eta gizonen artean ez dago ageriko alderik, baina batxilergoan handiagoa da emakumeen presentzia. Era berean, ikasketa-maila gorenetan, unibertsitatean, kasu, emakumeen proportzioa handiagoa da.

Eskola-uzte goiztiarraren tasa 5,4koa da EAEn; emakumeena txikiagoa (5,2). EB28ko batez besteko tasa (10,6) EAEkoa halako bi da; Espainiako, aldiz, EAEkoa halako hiru baino gehiago (18,3).

Derrigorrezko ikasketak amaitzen dituzten emakume gehienek ikasten jarraitzen dute, izan Batxilergoa (16.070), izan unibertsitate-ikasketak (35.460). Lanbide Heziketa hautatzen dutenak nabarmen gutxiago dira (5.061 emakume erdi-mailako zikloetan eta 7.486 goi-mailakoetan).

Lanbide-heziketan, emakumeen presentzia txikiagoa da (ikasle guztien % 35,1 erdi-mailako zikloetan eta % 36,6 goi-mailakoetan). Horietatik gehienak, gainera, Osasuna eta Irudi Pertsonala familia profesioetan biltzen dira; gizonak, aldiz, industria-sektoreko familietan.

Unibertsitate-ikasketen artean, emakumeen eta gizonen presentziak desberdinenak diren adarrak Osasun Zientziak (emakumeak % 75,4 dira) eta Ingeniaritza eta Arkitektura (gizonak, % 72,5). Unibertsitate-ikasketetan, halaber, irakaskuntzarekin, hizkuntzarekin, zaintzarekin, etab., lotuta dauden graduetan dira nagusi emakumeak. Gizonak, aldiz, ingeniartzetan.


Master ofizialei eta doktoregoei dagokienez, ez da alde nabarmenik hauteman emakumeen eta gizonen artean. Master ofizialetan eta doktoregoetan, emakumeen presentzia zertxobait handiagoa da, % 50,9 eta % 51,7 hurrenez hurren.

2016an, emakumeen batez besteko errenta pertsonala 15.578 €-koa izan zen, gizonen batez bestekoa (25.696 €) baino 10.000 € txikiagoa. Errentarik batere jasotzen ez duten emakumeen proportzioa % 15,3 da, eta gizonena, aldiz, % 10,8. 15.000 €-tik beherako errenta duten emakumeen proportzioagoa handiagoa da gizonena baino. Alabaina, zifra horretatik gora (15.000), egoera alderantzikatu egiten da; 15.000 €-tik gorako errenta duten gizonen proportzioa handiagoa da emakumeena baino tarte guztietan.


Pentsioetan ere aldeak daude emakumeen eta gizonen artean; emakumeen artean, alarguntza-pentsioa da nagusi (126.556 onuradun), eta gizonetan, aldiz, erretiroa (221.720 hartzaile). Pentsio motan bezala, alde handia dago batez besteko pentsioan: emakumeek jasotako batez besteko erretiro-pentsioa 892,07 €-koa da, eta gizonena, aldiz, 1.559,16 €-koa.

Pertsonen eta familien oinarritzko beharretarako laguntzen hartzaile kopuruan, DBSE jasotzen duten pertsonen % 57,3 emakumeak dira (34.303, gizonak, aldiz, 25.611 dira). Halaber, gurasobakarra izateagatik prestazio osagarriak jasotzen dituzten pertsonen artean, ia guztiak emakumeak dira (% 95,1). Azkenik, etxebizitza-prestazio osagarriaren banaketa orekatuagoa da; hartzaileen % 51,6 dira emakumeak, gizonak, aldiz, % 48,5.

## IKASKETAK




## Unibertsitatean matrikulatutako ikasleak, jakintza-arloka, sexuaren arabera




## ERRENTA

### Batez besteko errenta pertsonala, errenta-motaren arabera . 2016




### Batez besteko errenta pertsonala. 2016




## PENTSIOK ETA BALIABIDE SOZIO ASISTENTZIALAK


**Batez besteko pentsioak, pentsio-motaren arabera, sexuka. EAE, 2017**




**Egoitzak eta eguneko-zentroak, 2017**



**DSBE laguntzen titularrak, 2017**



**Etxebizitarako Prestazio Osagarrien titularrak (EPO), 2017**



#### 4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako sailburuen % 45,5 emakumeak dira, eta emakume sailburuordeen kopuruak izandako bilakaerarekin, berdintasunerako lege organikoak 2016ko hauteskundeen ondoren ezarritako gutxienekoa gainditu da (% 40); alegia, sailburuordeen % 48 dira emakumeak.


Eusko Jaurlaritzari atxikitako 10 erakunde autonomoetan, goi-kargudunen % 60 emakumeak dira. Alabaina, Eusko Jaurlaritzari atxikitako enpresa eta erakunde publikoetako zuzendaritza-postuetan, gizonak dira nagusi, kargudunen % 65,5 dira eta.

EAEn, CCOO eta LAB sindikatuen idazkari nagusiak emakumeak dira. Sindikatuen batzorde exekutiboetan, kideen % 42,5 emakumeak dira; zenbaki absolutuetan adierazita, 17 emakume daude batzordeotan.


Enpresaburuen elkarteetan, ordea, emakumeen presentzia nabarmen eskasagoa da. EAEko lau enpresaburu-elkarteen presidentek gizonak dira, eta zuzendaritza-kontseiluetan parte hartzen duten emakumeak gutxi dira, gutzitzkoaren % 22,5, hain zuzen. Era berean, EAEn egoitza duten finantza-erakundeetan, ez dago emakumerik presidente-karguetan, eta emakume gutxi dago administrazio-kontseiluetan (% 33,3).

## PARTAIDETZA / BOTERIA


Emakumeen presentzia Eusko Jaurlaritzako sailetan, sailburuetan, erakunde autonomoetan eta erakunde/enpresa publikoetan, 2018.



### Sindikatu nagusietako idazkaritza nagusiak eta batzorde exekutiboak, sexuaren arabera. 2018




### EAEko enpresaburu-erakundeetako zuzendaritza-kontseiluak, sexuaren arabera. 2018



\* Oharra: SEA-ri buruz ez dago daturik ez dutelako zehazten Zuzendaritza Batzordearen partaideak, enpresak soilik aipatzen dituzte.

### EAEn egoitza duten finantza-erakundeetako presidentek eta administrazio-kontseiluak, sexuaren arabera. 2018





## 5. GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA



Oraindik orain, emakumeek hartzen dute bere gain lan erreproduktiboa uztartzearen zama. Horren adibide, amatasun-prestazioa bere osoan baliatzea emakumeek, eta ia emakumeek bakarrik, 6. astetik aurrera haurdun egon ez den bikotekideari transferitzeko aukera dagoen arren. 2017an, guztira, 13.927 amatasun-prestazio baliatu dira, eta kasuen % 95ean emakumezkoa da eskatzailea.

Senideak zaintzeko eszedentziak ere maizago baliatzen dituzte emakumeek, bereziki seme-alabak zaintzeko eszedentziak (baliatu dituztenen % 92,6 emakumeak dira). Senideak zaintzeko eszedentzietan, eskatzaile gehienak emakumezkoak dira (% 82,1), baina gizonen proportzioa zertxobait handiagoa da arlo horretan.


Alde handia dago emakumeek eta gizonen lan erreproduktibora bideratzen duten denboran, batez ere seme-alaben zaintza-denboran (emakumeek 5,1 ordu egunean; gizonak 3,3 ordu egunean).

## LAN ERREPRODUKTIBOA


**Amatasun-prestazioak, sexuka. 2017.**  
**Guztira: 13.927**



**Eszedentziak, seme-alabak zaintzeko. 2017**  
**Guztira: 4.702**




**Eszedentziak, senitartekoak zaintzeko. 2017**  
**Guztira: 580**




## DENBORAREN ERABILERA

**Emakumeek eta gizonak etxeko lanetara bideratutako orduak egunean, EAE, 2017**



### 15 urtetik beherako seme-alaben zaintza egunean, EAE, 2017




## 6. INDARKERIA

2017an, 4.999 biktimizazio-kasu gertatu dira, eta, guztira, 4.020 biktima egon dira. Gehienetan, bikotekidea edo bikotekide ohia izan da erasotzailea (kasuen % 72,3an) 804 kasutan, senidea zen erasotzailea, eta 311 kasutan, beste esparru batzuetan jasan behar izan dute indarkeria emakumeek.


2017an bi emakume erail dituzte; 2002tik hona, EAEn, guztira, 42 emakume erail dituzte. Aurten, indarkeriaren biktima izan diren emakumeen % 70,8k erasotzailea salatu zuten.

### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA


**Emakume biktimak, indarkeria-motaren arabera. 2017**



**Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimizazioen bilakaera, indarkeria-motaren arabera.**



**Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak, erasotzailearen adinaren arabera. EAE, 2017**



**Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak, jaioterriaren arabera. EAE, 2017**

